

PRENTSA OHARRA

Amurriok bi enplegu-programa abiaraziko ditu Aiarako Kuadrillarekin elkarlanean

- Programa horiei esker, bederatzi pertsona kontratatuko dira sei hilabetez.
- Betekizunak betetzen dituztenek, lanbideko bulegoetan (Armurulanda Plaza, 4- Amurrio) eman beharko dute izena eskaintzan sartzeko, 2017ko azaroaren 24tik abenduaren 12ra bitartean.

Amurrio, 2017ko azaroaren 23a.- Amurrioko Udalak, Aiarako Kuadrillarekin elkarlanean, SARTU ALAVA irabazi-asmorik gabeko eta onura publiko eta sozialeko erakundearen eskutik, **bi enplegu-programa** martxan jarriko ditu **Amurrion, sei hilabetez, 9 pertsona kontratatzeko** (7 peoi eta 2 langileburu). Pertsona horiek herrian egon beharko dute erroldatuta, gutxienez 4 urteko antzinakotasunarekin. Lehenengo programak, udaleko ondasunak, kaleak eta instalazioak mantendu eta zaintzea izango du helburu, eta horretarako 4 peioi eta langileburu 1 kontratatuko dira. Bigarren programa, herri-mendian garatuko da, eta horretarako 3 peoi eta langileburu 1 kontratatuko dira.

Programa horiek **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen ditu**, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen diru-laguntzen barruan. Programen hartzaileak **lanean txertatzeko zailtasun bereziak dituztenak** dira, **eta aldi batez lan egiteko esperientzia izateko aukera ematen zaie, beren prestakuntza edota gaitasun pertsonalak eta motibazioa sustatzeko**. Kontratatuko diren pertsonak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa erregistratuta egon beharko dute eta hauetarikoak izan: diru-sarrerak bermatzeko errentaren (BSBE)



jasotzaileak, 35 urtetik beherakoak, 45 urtetik gorakoak eta gutxienez 6 hilabetez enplegu-eskatzaile bezala erregistratuta daudenak, iraupen luzeko langabeak (eskaintza argitaratu baino lehenagoko 18 hilabeteetan Lanbiden gutxienez 12 hilabetez erregistratuta egon direnak), 55 urtetik gorakoak, gizartetik baztertuta geratzeko arriskua dutenak, desgaitasunen bat dutenak, etxekoak (bikotekidea, 26 urtetik beherako seme-alabak, edo hortik gorakoak, desgaituak badira, edo adingabeak harreran) beren ardurapean dituzten emakumeak) eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Lanpostuen % 40 gutxienez emakumeek beteko dituzte, tratu berdinen eta aukera-berdintasunaren eta emakume eta gizonen arteko bereizkeriarik ez izateko printzipioen arabera. Eta lanpostuen % 15 gutxienez, 55 urtetik gorako langabeek.

Betekizunak betetzen dituztenek, **Lanbideko bulegoetan (Armurulanda Plaza, 4- Amurrio) eman beharko dute izena eskaintzan sartzeko, 2017ko azaroaren 24tik abenduaren 12ra bitartean.**